

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea



KAZETARITZA

IKASTURTEA 2017/2018

Memoria

Tinta urdinez idatzitako historia: Bergarako
Algodonera de San Antoniok utzitako aztarnak

EGILEA: Karmele Uribesalgo Alzola

ZUZENDARIA: Iñaki Lazkano Arrillaga

Leioa, 2018ko maiatzaren 29a

Aurkibidea

1. Sarrera.....	3
2. Ideiaren jatorria	3
3. Lanaren interesa	4
4. Helburuak	4
5. Metodologia	5
5.1. Informazio orokorreko bilaketa sarean:	5
5.2. Bilaketa zehatza:	5
5.3. Erabilitako iturriak eta kontaktuak:.....	6
5.3.1. Iturri pertsonalak.....	6
5.3.2. Iturri dokumentalak	8
5.4. Edukien antolakuntza eta erreportajearen idazketa.....	9
6. Zailtasunak	10
7. Ondorioak.....	11
8. Erreferentziak	12

1. Sarrera

Erreportaje honetan ehungintzak, eta bereziki kotoi fabrikek Bergaran izandako garrantzi eta gorabeherak jasotzen dira. Gipuzkoako hainbat herritan egon zen industria hau XIX eta XX. mendeetan, baina jada ia arrastorik ere ez duen ofizioa da.

Bergaran zeresan berezia izan zuten kotoi fabrikek, eta esanguratsuena, Algodonera de San Antonio izan zen; gerora eta itxi arte Tavex enpresaren parte izan zena. Hain izan zen industria indartsua, ezen kolore batek herriaren izena daraman: *Bergarako urdinak* edo *Azul Bergarak*, hain zuzen ere.

Algodonera de San Antonio eta Tavexeko langileak dira erreportaje honen protagonista, baita gaia gertutik ezagutzen dutenak ere. Beraien testigantza, bizipen eta istorioak oinarri hartuta idatzi dut lan hau, lantegi baten historia jendearen ikuspuntutik kontatuz.

2. Ideiaren jatorria

Gratu Amaierako Lanerako erreportaje sakona egokitu zitzaidala jakitean, interesatzen zitzaidan eta mamia izango zuten gaien bila hasi nintzen. Ideia asko nituen arren, ez nekien batzuk nola landu eta, beste batzuk, ez ziren egokiak lan honetarako.

Gauzak horrela, bi ideiarekin joan nintzen nire lanaren zuzendari izan den Iñaki Lazkanorengana:

- Abiadura Handiko Trenaren inguruan sortu den gatazka dela eta, interesgarria iruditu zitzaidan ikuspegi ezberdinak jasotzea. Horretarako, herritarrekin hitz egitea pentsatu nuen, beraientzat izango dituen onura eta kalteak ezagutzeko, nork bere esperientzia kontatuz. Bestalde, proiektua aurrera daramatenen testigantzak ere ezagutu nahi nituen, bai langile eta baita erakundeen ordezkariak ere.
- Aukeratu nuen gaia zen bestea, Algodonera de San Antonio lantegia oinarri zuen Bergarako ehungintzari buruzkoa.

Bi ideiak aurkezterakoan, gai bakoitzak zituen indargune eta ahuleziak begiratu genituen. Ehungintzaren aldeko apustua egin nuen azkenean, gai polita iruditu baitzitzaigun eta jendearen istorioekin gauza interesgarriak erdiesteko aukera ikusi genuen.

3. Lanaren interesa

Sarritan, zehaztasun handiz dakigu munduko zenbait txokotan zer gertatzen den, baina ez dugu inguruan jazotakoa ezagutzen. Betidanik entzun izan dut Bergarako industria garrantzitsuenetariko bat ehungintza izan zela, eta zehazki, kotoi fabrikek egiten zuten lana. *Begarako urdina* ere ezaguna dut txikitatik eta Algodonera de San Antoniori buruzko istorio ugari entzun izan ditut. Tavex ere entzuna neukan, baina ez nekien zehazki zer zen. Lana egiterakoan jakin dut Bergaran hainbat zirela lan hori egiten zuten fabrikak.

Istorio asko entzuten ditugu etxean, baina askotan ez gara konturatzen gertatutakoek baldintzatu dutela gure bizimodua eta hein handi batean horregatik direla gauzak gaur egun ezagutzen ditugun bezalakoak.

Begarako gazteok badakizkigu mahoi kolorearen inguruko zenbait kontu, baina azaleko ezagupenak dira. Nahiz eta askoren kasuan ongi ez oroitu, herriko ehun-fabrikak martxan ezagutu dituen azken belaunaldia gara eta beharrezkoa iruditzen zait historia hau jaso eta idatzita uztea. Hasierako urteetan bertan lanean ari zen langilerik ez dago jada eta une egokia iruditzen zait, berandu baino lehen, bizirik daudenen testigantzak jasotzea.

Bestalde, emakumeek lan handia egin zuten Algodonera de San Antonio bezalako enpresetan eta hauei ahotsa eta protagonismoa ematea ere beharrezkoa iruditu zait. Askotan pentsatzen dugu emakumeek etxean egiten zutela lan, baina horrelako kasuekin zenbaitek lantegietako lana ere egiten zutela ikusten da.

4. Helburuak

Begarako historian garrantzi handia du ehungintzak, baina denborak aurrera egin ahala, iragana ezabatuz doa. Hori dela eta, guztiz gal ez dadin, funtsezkoa iruditzen zitzaidan horrelako lan batean jasotzea. Hala, herritarren memorian mantenduko dira ehungintzaren kontuak.

Gai honen inguruan hainbat agiri dauden arren, orokorrean ez dira jasotzen istorio pertsonalak. *El Mundo Azul de Tavex* liburuak adibidez, enpresaren historia kontatzen du, sortu zenetik XX. mende amaierara arte. Enpresaren zuzendari izan zirenen nondik norakoak eta bitxikeriak kontatzen diren arren, ez dago lehen pertsona kontatutako

istoriorik. Nire erreportaje hori jaso nahi nuen. Ezinbestekoa da historia ezagutu eta gauzak nola gertatu ziren jakitea, baina langileek bizi izan zuten esperientzia kontatzea oso interesgarria iruditzen zitzaidan. Horrek gertutasuna ematen dio kontatutakoari eta esango nuke irakurlea bera ere gehiago murgiltzen duela istorioan.

Gertutasun horretaz baliatuz, erreportaje bat historiako testu bat baino errazago irakurtzen dela uste dut. Nire helburua edonork irakurtzeko moduko kazetaritza testu bat egitea zen. Hala, interesatuta dagoen edonork, unetxo bat hartu eta gertatutakoa modu arin batean ulertzea nahi nuen.

Ni jaio eta gutxira itxi zen Bergarako azken ehun-fabrika eta ezer gutxi ezagutu dut nik. Hori dela eta, nolabaiteko distantzia batetik idatzitako erreportajea da hau, nahiz eta gertukoa sentitu, oso presente egon baita herrian. Gaia beste ikuspuntu batetik erakustea ere beste helburuetako bat zen; nire belaunaldiak oso gutxi landu duen kontua baita. Guk ez dugu ehungintzaren aro oparoa ezagutu eta interesgarria izan daiteke gure mundu ikuskeratik landutako erreportaje bat irakurtzea.

5. Metodologia

5.1. Informazio orokorreko bilaketa sarean:

Gaia zehaztu aurretik, Bergarako ehungintzaren inguruko bilaketak egin nituen sarean. Hala, informazio kantitatea eta kalitatea zein zen ezagutu nahi nuen, zukua ateratzeko moduko gaia zen ikusteko asmotan.

Espero baino informazio gehiago aurkitu nuen lehen bilaketa egitean. Zenbait web orrialdetan landutako kontua zen Bergarako ehungintzarena eta hainbat liburu eta tesi bat ere bazeudela ikusi nuen. Gauzak horrela, sareko informazioa irakurtzen hasi eta gaia kokatzen hasi nintzen, ehungintzak herrian izandako nondik norakoak gutxi gorabehera ulertzearekin batera.

5.2. Bilaketa zehatza:

Hainbat testu irakurri ostean, benetan interesatzen zitzaizkidan agirieta jo nuen. Juan Martin Elexpuru eta Idoia Etxeberriaren *Lan eta lan, emakumeak Bergaran* liburua aurkitu nuen Bergarako Udaleko web orrian eta bertatik atera ditut emakumeek ehungintzan egin zuten lanaren zenbait datu eta xehetasun.

El Mundo Azul de Tavex liburua bereziki interesatzen zitzaidan irakurgai zen. Tavexek berak argitaratu zuen 1996an, enpresaren 150. urteurrena zela eta. Bertan, lantegiaren historia kontatzen da eta dokumentu ezin hobea iruditu zitzaidan nire erreportajerako. Manu Diazek eman zidan liburua elkarrizketa egiteko hitzordua egin genuenean.

Bergarako Udal Artxibora ere joan nintzen. Bertan, aipatutako bi liburuez gain, beste zenbait agiri begiratzeko aukera izan nuen, baina bereziki interesatzen zitzaizkidanak *Lan eta lan, emakumeak Bergaran* eta *El Mundo Azul de Tavex* zirela ziurtatu nuen.

5.3. Erabilitako iturriak eta kontaktuak:

5.3.1. Iturri pertsonalak

Juan Martin Elexpuru. *Lan eta lan, emakumea Bergaran* liburuaren idazlea da Idoia Etxeberriarekin batera. Lagun batek pasa zidan bere telefono zenbakia. Deitu nion eta elkarrizketa egiteko prest zegoela esan zidan. Bergarako taberna batean gelditu ginen eta ordubete eman genuen, Algodoneraren hastapenez ez ezik, fabrikak utzitako aztarnaz ere solasean. Hau da ehungintzarekin zuzenean lotuta ez dagoen elkarrizketatu bakarra. Gaia landu duen arren, bera ez baita inoiz ehungintzan aritu. Gainontzekoek beraien bizipenak kontatu dizkirate eta ikuspuntu historiko bat eskuratzeko jo nuen Elexpurrengana.

Manu Diaz. 1991n sartu zen Algodoneran, enpresaren barneko abokatu izateko. Idazkari orokorra izan zen eta itxiera unean bertan zebilen lanean. Bere esperientzia nolakoa izan zen kontatu zidan, baita bere ikuspegitik itxieraren arrazoiak zeintzuk izan ziren ere. Bergarako futbol elkarteko kirol zuzendaria denez, bere telefono zenbakia internetetik lortu nuen. Nire asmoa zein zen azaldu nionean, bere lantokira joan eta bertan hitz egingo genuela esan zidan. Elkarrizketa amaitu ostean, Gabiriako dorrera joan nintzen berarekin. Bertan, Algodonerako zenbait agiri erakutsi zizkidan eta fabrikaren erabilitako zenbait makina ere ikusi ahal izan nituen.

Maria Paz Alustiza. Arrasateko Lanbide Eskolan delineatzaile ikasketak egin eta General Mecanican lan egin ostean, Algodonera de San Antoniora joan zen, non bere aita eta ahizpa, Maria Rosa Alustiza, zeuden. Enpresako bulegoan egoten zen, ekoizpen lanetan eta bertan izandako bizipenei buruz hitz egiteko

gelditu nintzen berarekin. Lehen aldiz deitu nionean, oso gai polita iruditzen zitzaiola esan zidan, maitasun handiz gogoratzen dituen urteak direla bertan pasatakoak. Marrazketa lokal bat du Bergaran eta bertan egin nuen hitzordua berarekin eta Maria Rosarekin. Ordu eta erdiz egon ginen hizketan.

Maria Rosa Alustiza. Maria Paz Alustizari deitu nionean, bere ahizpa Maria Rosak Algodonerako kontu dezente zekizkiela esan zidan eta nahi banuen bere kontaktua emango zidala. Enpresako giza baliabideetan egiten zuen lan eta, beraz, interesgarria iruditu zitzaidan bakoitzak bere ikuspuntua kontatzea. Telefonoz deitu nionean, gai honen inguruan ez duela hitz egiten esan zidan; pasarte mingarriak bizi izan zituen fabrikaren itxieran, eta hori dela eta, nahiago izan du isilik egotea. Hala ere, kasu honetan elkarrizketa egitera animatuko zela esan zidan.

Manolo Gabilondo. Alustiza ahizpek eman zidaten Manolo Gabilondoren izena. Algodoneran lan egin zuen jendeari buruz hitz egitean aipatu zuten bera, baina ez zeukaten bere telefonorik. Etxean galdetu nuen ea Manolo Gabilondo ezagutzen zuten eta nire izebaren lagun baten familiakoa denez, bertatik lortu nuen kontaktua. Gabilondok gustura hitz egingo zuela esan zidan eta bere etxera joan nintzen elkarrizketa egitera.

Gorka Gonzalez. Textiles Ibarren oraindik ere ehungintzarekin erlazioa zutela nekien eta, zehazki, zer egiten zuten jakin nahian jo nuen bertara. Gorka Gonzalezekin hitz egiten hasi eta beraien lana zein zen azaldu zidan. Algodonera de San Antonion lan egindakoa zela esan zidan eta, beraz, elkarrizketa interesgarria izan genezakeela iruditu zitzaidan. Textiles Ibarako bulegoan bertan gelditu ginen bere esperientzia ezagutzeko.

Juanjo Gonzalez. Gorka Gonzalez elkarrizketatzera joan nintzenean, Juanjo anaia ere bertan zegoen. Hori dela eta, bere bizipen eta iritzia ezagutzea interesgarria iruditu zitzaidan, gaiaren inguruko beste ikuspuntu bat izango zelakoan. Eta hala izan zen; ehungintzaren gaur egungo egoeraz hitz egiten egon nintzen berarekin.

Javier Etxebarria. Manu Diazek Javier Etxebarriarekin egoteko gomendatu zidan; Tavexeko finantza arduraduna izan zen eta oso ongi ezagutzen du

enpresaren historia. Amaierako urteetako kontuei buruz hitz egiteko proposa izango zela pentsatu nuen. Gauzak horrela, deitu eta elkarrizketaren data zehaztu genuen.

Ascension Fernandez. Hau ere Algodonera de San Antonion aritu zen lanean eta beste langile baten testigantzaren bila nabilela aurkitu nuen. Ezagun bati nire Gradu Amaierako Lana azaltzean, Fernandez ezagutzen zuela esan zidan. Telefonoa eman zidan eta bere etxean gelditu ginen elkarrizketa egiteko.

Xabier Larrañaga. Elkarrizketatu guztiei galdetu nien nola bizi izan zuten lantegiaren itxiera. Manu Diazek eta Javier Etxebarriak zuzendaritza taldearen ikuspuntua eman zidaten eta, Maria Paz eta Maria Rosa Alustizak, une hartan zeuden langileena. Edozelan ere, gertaeren nondik norakoak hobeto ezagutzeko, sindikaturen batera jotzea erabaki nuen. Interneten bilaketak egiten hasi nintzen gai honekin sasoi hartan nor aritu zen jakin ahal izateko. Hala, ELA sindikatuak argitaratzen duen Landeia aldizkaria aurkitu nuen. 1996ko maiatzeko zenbakian Tavexen eta Bergarako ehungitzaren inguruko elkarrizketa bat zegoen. Hainbat izen aurkitu nituen bertan eta horietako bat zen Xabier Larrañagarena. Bere telefono zenbakiaren bila aritu nintzen eta EiTBko kontaktu zerrendan aurkitu nuen, bekadun bezala egon bainaiz bertan. Xabier Larrañagari deitu eta hitzordua zehaztu genuen asteburu horretarako.

Iñigo Alberdi. ELAko sindikalista da hau ere. Xabier Larrañagarekin hitz egin nuenean, Iñigo Alberdirekin ere egoteko esan zidan, gauza interesgarriak kontatuko zizkidalako. Hori dela eta, biak batu eta elkarrizketa egin nien, eta bakoitzak bere ikuspuntu eta bizipenak kontatu zizkidan.

5.3.2. Iturri dokumentalak

Interneten bilaketak egiten hasi bezain laster, Gipuzkoako Foru Aldundiaren webgunean aurkitu nuen iturri gisa erabili dudan dokumentuetako bat. Antzinako lanbideen artean ‘Mahoneros de Bergara’ izenpean, herriko ehungintzaren inguruko informazio dezente dago. Batez ere, lan prozesuak nola ziren jakiteko erabili dut.

Bilaketekin jarraituta, *Lan eta lan, emakumea Bergaran* liburua aurkitu nuen. Interesgarria izan zitekeen informazioa zegoela ikusita, ezagun baten bitartez lortu nuen liburua.

El Mundo Azul de Tavexi aipamena egiten zioten dokumentu guztietan. Liburutegian eskatu nuen, baina Manu Diazekin elkarrizketa egitean, berak eman zidan liburua eta nire lanaren oinarri sendoenetakoa izan da. Honen bitartez, historiaren ildo jarraitu ahal izan dut.

Liburutegian bilaketak egiten ari nintzela, Fatima Gonzalez eta Monica Martinezen lanak ere aurkitu nituen. Batez ere Andoaingo kotoi-fabrikako kontuak bildu dituzten arren, interesgarria iruditu zitzaidan beste herri batzuetako egoera ere ezagutzea. Hori dela eta, *Algodonerako emakumeak (1857-1965)* eta *Leyçaur 9; Andoaingo algodonera, bertako langileak eta emakumeen ezaugarriak 1857-1965* lanak ere irakurri nituen.

Gainontzean, bilaketak egin ditut interneten eta hainbat web orrialdetako informazioa irakurri dut. Hala ere, arestian aipatutako iturriak zituzten gehienek oinarri.

5.4. Edukien antolakuntza eta erreportajearen idazketa

Hamaika elkarrizketa egin ditut guztira eta horrek informazio asko biltzeko aukera eman dit. Elkarrizketa guztiak nituenean, jasotako datu eta testigantza horiek nola antolatu pentsatu behar izan nuen, ordena logiko bat eman, koherentzia lortu eta interesgarria izan zedin.

Une horretan erabaki nuen erreportajea hiru ataletan bereiztea. Lehenengoan, lantegiaren hasierako urteei buruz hitz egitea pentsatu nuen, batez ere, *El Mundu Azul de Tavex* liburuko eta Juan Martin Elexpuren elkarrizketako informazioa erabilita.

Bigarren atalean, lantegiaren urrezko urteak landu ditut. Horretarako, sasoi hartan lanean ari zirenen testigantzak bildu nituen. Ascension Fernandez, Manolo Gabilondo, Maria Paz eta Maria Rosa Alustizak kontatutakoak izan dira erreportajearen tarte honetako oinarria. Hala ere, *Lan eta lan, emakumeak Bergaran* liburua ere oso baliagarria izan da, batez ere, emakumeen lanaren gaia landu dudan parterako. Kasu honetan ere, informazio dezente atera dut *El Mundo Azul de Tavex* liburutik.

Hirugarren atalean, Bergarako Tavexen azken 30 urteak batu ditut. Aldaketa handiak izan ziren garai honetan; burtsan sartzea, lantegi berriak erostea eta enpresaren gainbehera, esaterako. Manu Diaz eta Javier Etxebarriarekin proiektu berriaren inguruan hitz egin nuen eta beraiek esandakoaren bitartez kontatu dut azken urte hauetako historiaren zati bat. ELAko sindikalista diren Xabier Larrañaga eta Iñigo Alberdiren hitzak ere sartu ditut atal honetan, jasotako informazioarekin batera.

Zatiduretarako erreportajea hain sakonki landu ezin izan ditudan hiru kontu jaso ditut. Urdin kolorea bereziki garrantzitsua izan zen Bergarako ehungintzarako eta gaur egun ere nolabaiteko presentzia baduela erakutsi nahi izan dut, sarri ez baitugu pentsatzen zergatik den urdina Bergarako sinboloa. Lehen pertsonan idazteko hautua egin nuen, irakurketa arintze aldera eta erregistro aldaketa bat egiteko asmoarekin. Gertutasuna ere adierazi nahi izan dut idazteko modu honekin; herriko alderdi ezberdinetan dago urdina eta herritar baten ikuspuntutik nola ikusten den erakutsi nahi nuen.

Bigarren zatidurarako Gorka Gonzalezen elkarrizketa egokia iruditu zitzaidan. Testu nagusian ezin izan nituen berak kontatukoak sartu, baina oso gauza interesgarriak azaldu zizkidan. Algodonera de San Antonioko langilea izan zen eta fabrika utzitakoan ere ehungintzaren munduan aritu da lanean, ia erretiratu arte. Bere bizipenez gain, ehungintzaren inguruko gogoeta bat ere egiten du eta irakurlea ere horretara animatu nahi izan dut. Galdera-erantzun formula erabili dut kasu honetan, erreportajeari dinamismoa emateko asmoz.

Martina Maizi aipamen berezi bat egitea ezinbestekoa iruditu zait. Manu Diazek esan zidan Maizen bizitzarekin eleberri bat idatz daitekeela. Hori entzutean, emakume hari buruz gehiago jakin nahi izan nuen eta zenbait bitxikeri aurkitu nituen. Bere garaiko emakumeen artean ohikoak ez ziren ardurak ere bazituen eta azpimarratu egin nahi izan dut bere lana.

6. Zailtasunak

Lan hau egitean, zailtasun handiena informazioaren kudeaketan egon da. Datu eta testigantza asko jaso ditut eta idazten hasi behar nintzen unean, zalantza asko izan nituen. Ez neukan oso argi nola antolatu behar nuen jasotako informazio dena, ezta bata bestearekin batutakoan ere zentzua izango zuen ala ez.

Iturriak lortzeari dagokionean, hasiera izan zen zailena. Ez nekien zehazki norengana jo nezakeen. Banekien herritar batzuk modu batera edo bestera gaiarekin lotuta zeudela, baina ez nekien egokiak ziren eta hiruzpalau iturri besterik ez ziren. Hala ere, behin elkarrizketak egiten hasita, elkarrizketatu batek bestearengana eraman nau eta espero baino jende gehiago aurkitu dut. Denek prestutasun handia erakutsi dute eta beti laguntzeko prest egon dira. Askorentzat gai kutuna da hau eta bazuten hitz egiteko gogoia.

Idazten hasi nintzenean, arazoak izan nituen erreportajearen lehen atalarekin. Nire planteamendu orokorra gaia protagonisten begietatik kontatzea zen, baina ez dago bizirik fabrikaren lehen urteetan lanean ari zen inor eta beraz, hasierako urte horiek azaltzean ez zen posible hala egitea. Iturri dokumentaletara jo dut atal hori idazteko eta saiakera berezi bat egin behar izan dut historia-testu baten itxura har ez zezan. Gogoan izan behar nuen erreportaje bat idazten ari nintzela.

7. Ondorioak

Hainbat ekarpen egin dizkit erreportaje sakon hau egiteak eta gaiaren inguruko zenbait ondorio ere atera ditut:

Erreportaje ugari egin ditugu kazetaritza graduko lau urte hauetan, baina inoiz ez dut hain kazetaritza testu sakonik idatzi. Hainbeste hilabetez gai bat lantzen aritu naizen lehen aldia da eta lan egiteko beste modu bat ezagutu ahal izan dut.

Dokumentazio lan handia suposatu du erreportaje honek. Normalean interneten egiten ditut bilaketak, baina kasu honetan liburuetara ere jo behar izan dut. Gaur egungo gazteok ez gaude liburutegira joan eta informazioa bilatzen ohituta eta esperientzia berri bat izan da hori ere.

Bestalde, elkarrizketa ugari egin behar izan ditut. Horrek bi erronka nagusi suposatu ditu. Alde batetik, jendearen bila aritu behar izan naiz, eta bestetik, elkarrizketak prestatzeko eta egiteko erraztasuna hartzen joan naizela ikusi dut.

Iturri bakoitzak bere ikuspuntua eman dit. Bakoitzak kontatutakoa interpretatzeko ariketa egin dut eta zenbait kasutan gauza bera kontatzeko hainbat modu daudela ikusi dut. Denak batuta, testuan iritzi ezberdinak uztartzen saiatu naiz.

Ehungintzaren egoera ezagutu ahal izan dut. Banekien deslokalizazioak kolpe gogorra jo diola duela urte batzuk ezagutzen zen ehungintzari, baina ez nekien Europako egoera hain kaskarra zenik. Argi dago gauzak etengabe aldatzen direla. Hala ere, historiaren zati honek zapore gazi-gozoa utzi dit; euskal ehungintzak urte loriatsuak izan dituen arren, pena da horrelako industria indartsu bat hemendik kanpora eraman eta ehunak herrialde txiroetan eskaintzen diren lan baldintza txarretan egitea.

Herriaren historiaren zati bat sakonki ezagutzeko parada ere izan dut. Horrek gaur egun mantentzen diren zenbait ohitura ulertzen lagundu dit eta historiaren aldaketek gure bizitza nola baldintzatzen duten ikusi dut.

8. Erreferentziak

Elkarrizketak

- Juan Martin Elexpuru: 2018ko martxoaren 10ean, Bergaran.
- Manu Diaz: 2018ko martxoaren 16an, Bergaran.
- Maria Paz eta Maria Rosa Alustiza: martxoaren 18an, Bergaran.
- Manolo Gabilondo: martxoaren 23an, Bergaran.
- Gorka eta Juanjo Gonzalez: apirilaren 3an, Bergaran.
- Javier Etxebarria: apirilaren 6an, Bergaran.
- Ascension Fernandez: apirilaren 13an, Bergaran.
- Xabier Larrañaga eta Iñigo Alberdi: apirilaren 21ean, Bergaran.

Dokumentuak

ELEXPURU, J.M., & ETXEBERRIA, I. (2014). *Lan eta lan, emakumea Bergaran*. Bergara: Bergarako Udala.

GONZALEZ, F., & MARTINEZ, M. (2006). Andoaingo algodonera, bertako langileak eta emakumeen ezaugarriak 1857-1965. *Leyçaur, Andoaingo ikerketa historikoen aldizkaria*, 9, 63-119.

GONZALEZ, F., & MARTINEZ, M. (2007). *Algodonerako emakumeak (1857-1965)*. Andoain: Erroitx BM.

PERALLON, J. E., & LOPEZ J. L. (1996). *El Mundo Azul de Tavex*. Bergara: Tavex.

ZEBERIO, G. (1996, maiatzak 1). La mundialización en casa. *Landeia*, 12-13. orrialdeak.

Sarekoak

-ahotsak.eus: Bergarako ehungintzan aritu zirenen langileen zenbait bideo daude eta horietako batzuk *Lan eta lan, emakumea Bergaran* liburuan azaltzen dira. Eskuragarri:

<https://ahotsak.eus/proiektuak/bergarako-emakumea-eta-lana/>

-gipuzkoa.eus: Antzinako ofizioen atalean gai hau lantzen da *Mahoneros de Bergara* izenpean. Eskuragarri:

<https://www.gipuzkoa.eus/es/web/aintzinako-lanbideak/mahoneros-bergara-presentacion>

-elpais.com: Tavexen itxierako albisteak. Eskuragarri:

https://cincodias.elpais.com/cincodias/2010/11/11/empresas/1289486385_850215.html

-probuen.es: Tavexen eta bere itxieraren inguruko informazioa. Eskuragarri:

<https://www.probuen.es/blog/que-paso-con-el-grupo-tavex/>

-wikipedia.org: Tavexen inguruko informazioa. Eskuragarri:

https://eu.wikipedia.org/wiki/Tavex_Algodonera